

AZPEITIA / Udal Liburutegiak ateak zabaldu ditu berriz ere oporren ondoren

DV. Enparan Dorretxean kokatuta dagoen Udal Liburutegia astelehenean ireki da oporretako etenaldiaren ondoren.

Uztailaren 30ean itxi zuten liburutegia saninaziyuen hasierekin batera. Hamabost egun baino gehiagoko tartearen ondoren ireki da berriro herritarrei.

Hala ere, ordutegia udakoa izaten jarraituko du. Hau da, goizeko zortzi eta erdietatik eguerdiko ordu bietara. Ordutegi berezi hau irailaren 6ra arte mantenduko da. Dena den, irailean urteko ohiko ordutegia berreskuratuko du udal liburutegiak.

Udan ere, zerbitzu guztiak eskaintzen ditu liburutegiak: kontsultak, liburuak, fotokopiak, ikasgela. Baina bertako arduradunek diotenez, jende gutxi ibiltzen da opor garaian. Gehienetan ohiko bezeroak, prentsa irakurtzera etortzen direnak dira eta bereziki iraileko azterketak prestatu behar dituzten ikasleak etortzen dira abuztuan liburutegira. Eguraldiak ere zer esana izaten du liburutegian elkartzen diren lagunen kopuruan. Eguraldi onarekin jendea ez da hurbiltzen Enparan Dorretxera, baina euriarekin batera etxeko txikienak gurasoekin batera disfrutatzen dute liburutegiaz.

Bestalde, liburutegiaren egoitza bera erabiltzen badu ere, Enparan Dorretxean dagoen KZ gunea itxita egongo da abuztu guztian zehar. Irailaren 1ean zabalduko da. Ireki eta berehala ohiko funtzionamendua eta ordutegia bereganatuko ditu ikastaroak eta ohiko internet edo aholkularitza informatikoa.